

Zure eskaerari erantzunez, idazki honen bidez jakinarazten dizut Euskadiko Dokumentu eta Artxiboen Legearen aurreproiektuari ez zaiola egin behar Generoaren araberrako Eraginaren txostena, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaz onartutako Jarraibideetako lehenaren 2 atalaren a) puntuan aurreikusitako salbuespena aplikatu dakiokelako (Jarraibideak, generoaren araberrako eragina aurretiaz ebaluatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ezabatu eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeko).

Hain zuzen ere, lege-aurreproiektuak ez du garrantzi handirik genero-ikuspuntuari dagokionez, legearen xedea Euskadiko Dokumentu Ondarea eta Artxiboen Sistema arautzea denez gero; horretarako, indargabetu egingo da, zati batean, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, bai eta lege-aurreproiektu honetan xedatuaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak ere.

Edonola ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoa kontuan harturik, gomendio batzuk egiten ditugu, aintzat har ditzazuen:

- **Hizkera sexismorik gabe erabiltzeko**, 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan xedatuarekin bat etorriz, berrikusi eta egokitu egin behar dira aurreproiektuaren testuan soilik maskulinoz adierazitako terminoak ("los ciudadanos", "los creadores y gestores", etab.).
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 artikuluan xedatua bermatzeko, gogorarazten dugu kultura- eta arte-funtsak eskuratzeko gaituta dauden organoak erregulatzen dituzten arauetan klausula bat sartu behar dela hautaketa-epaimahaietan **emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua** izan dadin bermatzeko. Halaber, 23. artikuluan gogorarazten denez, zuzendaritza-organoetan eta kide anitzeko organoetan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadin sustatu behar da. Kasu honetan, artikuluko horiek aplikatzekoak izango dira bai Euskadiko Artxiboen Kontseilurako, bai Euskadiko Dokumentazioa Ebaluatzeko, Hautatzeko eta Eskuratzeko Batzorderako. Aurreikusita dago etorkizunean Euskadiko Artxiboen Kontseiluaren osaera eta funtzionamenduari buruzko erregelamendua egitea; beraz, gogorarazten dugu proiektu horri Generoaren araberako Eraginari buruzko Txostena egin beharko zaiola, herritarrek parte-hartzen badute, betiere.
- **Dokumentuen eta artxiboen irispidearen** inguruan herritarrek dituzten eskubideei buruzko artikuluko guztietan (22.3.2 artikulua, 31. artikulua),

- gomendatzekoa da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 25. artikuluan xedatuta betetzen den zaintzea, alegia, *“Euskal herri-administrazioek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bai sexuaren ziozko bereizkeria saihesteko, bai sustatzeko emakumeek zein gizonek parte hartzeko aukera eta partaidetza orekatua izan dezatela kultura-jarduera guztietan”*. Ezartzen den araubidea EAeko Administrazio Publikoaren Legeari loturik dagoenez —lege hori onartzeko prozesuan baitago egun—, gogorarazten dugu honako hau ezartzen dela lege-aurreproiektu horren 88.3 artikuluan (gardentasuna), dokumentu eta artxiboetarako irispidea bermatzeko: *“Informazioa emateko, irisgarritasun unibertsalaren eta guztiontzako diseinuaren printzipioari jarraituko zaio, eta eta generoaren ikuspegia sartuko da”*.
- Azkenik, gogoan izan datuak, eroldak, pertsona fisikoen erreklamazioak, artxiboetako langileen datuak edo zernahi datu kudeatzerakoan, **datuak sexuaren arabera bereizita** jaso behar direla, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikuluan xedatuarekin bat etorriz. Gerora azterketa konparatibo bat egiteko aukera emango du horrek.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 29a.